


Denbora-

1 Aurkitu irudian

Txakur ederrena aukeratzeko lehiaketa egin dute herrian. Arraza askotako txakurrak zeuden, baina hiru berdinak ziren. Zein?




2 Zer dago ezkutuan?

Maialenek asko bidaiatu du, baina beti ez da garraiobide berdinean joan. Begiratu itzalei, eta ea asmatzen duzun zein garraiobide erabili dituen.

3 Bikiak


Txakur berdin-berdina erosi omen dute Izaskunek eta Enekok. Zein dira bi txakur horiek?



-pasak

4 Aukeratu hitz zuzena

H hizkiarekin jolastea gogoko du Gorkak. Hitz batzuk zuzen idatzi ditu; beste batzuk, aldiz, ez. Zein daude zuzen idatziak?



5 Ordenatu irudiak

Erlategiko erleen lana filmatu zuen joan den urtean Josuk. Irudiak lekuz aldatu ditugu. Ordenatu polen bila joan den erlearen ibilbidea.

Jolasa

Bilatu bikotea!

Askotariko pieza, torloju eta azkoinen artean, batera doazen piezak batzea erraza dela uste al duzu? Ea, saia zaitetz!

1 Jokalariei kaxa bana emango zaie. Bost azkoin eta beste bost kontrazkoin egongo dira kaxa bakoitzaren barruan, baita hainbat torloju ere. Azkoin bakoitzari bere kontrazkoina dagokio, noski.

2 Jokalariaren lana: azkoin bakoitzaren bikotea bilatzea. Hots, azkoin bakoitza dagokion kontrazkoinarekin lotu behar da. Ahalik eta azkarrena egin behar da lana.

3 Pieza guztiak batzen denbora gutxien behar duen jokalaria irabaziko du partida.

